

Pirinioko Mahaia

MESA DEL PIRINEO

Pirinioko Mahaiak alderdi politikoei gogorarazi die Pirinioetako Planarekin aho batez hartutako konpromisoa

Nafarroako Gobernu berria eratzeko negoziazio-saioen harira, tokiko ordezkariak eskatu dute “Pirinioentzako 5 minutuak trukagarriak izan ez daitezen”

Pirinioetan, 2023ko uztailaren 27an

Nafarroako Gobernu berria eratzeko negoziazio-saioak egiten ari diren honetan, Pirinioko Mahaian ordezkatuta dauden toki-erakundeek parlamentu-taldeei eskatu nahi diete aho batez hartu zuten konpromisoa berresteko, eta Pirinioak eta despopulazioaren arazoa trukagarriak ez izateko.

Toki-hauteskundeak egin eta udalak eratu ondoren, Pirinioko Mahaiak lehen bilera egin du tokiko ordezkari berriekin, lanean jarraitzeko asmoz.

Bilera horretan ezinbestekotzat jo dute “Nafarroako Parlamentu berriak berriz ere konpromisoa hartzea eta aho batez parlamentu-batzordea sortzea eta izendatzea, aurrekoan egin zen bezala, Pirinioek berehala harremanei ekin ahal izateko.”

Halaber, eratuko den gobernu berriari dei egin diote Pirinioentzako bost minutuak eskaintzen jarraitzeko borondatea izan dezan eta eremu despopulatuek dituzten erronken eta premien mailan egon dadin.

La Mesa del Pirineo recuerda a los partidos políticos su compromiso unánime con el Plan del Pirineo

Ante la negociación para la conformación de un nuevo Gobierno Foral, la representación local de este territorio pide que “los 5 minutos para el Pirineo no sean moneda de cambio”

En el Pirineo a 27 de julio de 2023

En estos días de negociación para la conformación de un nuevo Gobierno de Navarra las Entidades Locales representadas en la Mesa del Pirineo piden a los grupos parlamentarios de la Comunidad Foral que mantengan su compromiso unánime para que el Pirineo y el problema de la despoblación no se conviertan en moneda de cambio.

La Mesa del Pirineo ha realizado la primera reunión tras las elecciones autonómicas y locales para conformarse con las nuevas representaciones locales y retomar el trabajo.

Una reunión en la que han considerado “imprescindible que el Parlamento de Navarra de manera unánime se comprometa de nuevo a crear la comisión parlamentaria con la que el Pirineo pueda seguir relacionándose de manera fluida e inmediata con el poder legislativo foral”.

También emplazan al Parlamento de Navarra a constituir un gobierno con voluntad de seguir contemplando esos cinco minutos por el Pirineo y que esté a la altura de los retos y necesidades que

Pirinioko Mahaia

MESA DEL PIRINEO

“Nafarroako Parlamentuari eskatzen diogu despopulazioari aurre egiteko diskriminazio positiboko neurriak bultzatzen dituen tresna bat izan dadin, eta Pirinioekin eta despopulazioa jasaten duten Nafarroako gainerako eremuekin konprometitutako gobernu ausart eta erabakitzaile bat eratu dezan. Era berean, argi adierazi nahi dugu aurreko legealdian eratutako Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren lana beharrezkoa dela planari sostengua eta bultzada emateko eta Gobernuko beste departamentu batzuekiko solaskide gisa.”

“Uste dugu garaia dela agenda politikoan despopulazioari buelta emateko gai erabakigarriak sartzeko: despopulazioari buruzko lege bat, eskualdeak ezartzea, administrazio-izapideak gure herrien errealitatera egokitzea, zerbitzu publikoak eta hezkuntza emateko biztanleria-ratioak doitzea; azken batean, legeak eta arauak urtero biztanleriaren % 10 galtzen duen eskualde baten problematikara egokitzea.”

Pirinioko Mahaia

plantean las zonas despobladas de la Comunidad Foral.

“Instamos al Parlamento de Navarra a ser un instrumento que impulse medidas de discriminación positiva para la despoblación y que conforme un gobierno audaz, resolutivo y comprometido con el Pirineo y con el resto de las zonas de Navarra que sufren la despoblación. Así mismo, queremos dejar constancia de la necesaria labor de la unidad orgánica (Dirección General de Proyectos Estratégicos) creada en la anterior legislatura como soporte e impulso al plan y como ente interlocutor con otros departamentos de Gobierno.”

“Igualmente creemos que es momento de incluir en las agendas políticas cuestiones que son determinantes para revertir la despoblación: una ley de despoblación, la implementación de las comarcas, la adecuación de los trámites burocráticos a la realidad de nuestros pueblos, el tan necesario ajuste de ratios de población para servicios públicos y educación, y que el lenguaje jurídico y normativo se adecue a la problemática de una comarca que pierde un 10% de población cada año”.

La Mesa del Pirineo